



**Datuak Babesteko
Euskal Agintaritza**
Autoridad Vasca de
Protección de Datos

URTEKO KONTUAK ETA PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MEMORIA 2025



Aurkibidea:	Orrialdea
1 BALANTZEA	4
2 EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA.....	5
3 ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA	6
3.1 Ondare garbiaren aldaketen egoera guztira	6
3.2 Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orria	6
4 ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA	7
5 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA.....	8
5.1 Gastu-aurrekontuaren likidazioa	9
5.2 Sarrera-aurrekontuaren likidazioa.....	10
5.3 Aurrekontu-emaiza.....	10
6 MEMORIA	11
6.1 Hitzaurrea.....	11
6.2 Eginkizunak eta antolaketa	11
6.2.1 Eginkizunak eta ahalak	11
6.2.2 Antolaketa.....	12
6.2.3 Plantilla	13
6.2.4 Goi-mailako Zuzendaritza (zuzendaritza-kideak).....	14
6.3 Kontuak aurkezteko oinarriak	14
6.4 Onarpen- eta balioespen-arauak.....	14
6.5 Ibilgetu ukiezina.....	16
6.6 Ibilgetu materiala.....	16
6.7 Esleipenak, transferentziak, dirulaguntzak eta beste diru-sarrera eta gastu batzuk	17
6.7.1 Esleipenak, transferentziak eta beste diru-sarrerak	17
6.7.2 Dirulaguntzak eta beste gastu batzuk.....	17
6.8 Aurrekontuz kanpoko eragiketak	18
6.8.1 Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	18
6.9 Administrazio-kontratazioa. Esleipen-prozedurak	18
6.10 Ingurumenari buruzko informazioa	18
6.11 Aurrekontuei buruzko informazioa	18
6.11.1 Kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen egoera, aurreko ekitaldietakoa	19
6.11.2 Diruzaintzako kontua	20
6.11.3 Kreditu txartelak.....	21
6.12 Finantza-, ondare- eta aurrekontu-adierazleak	22
6.13 Ekonomia- eta ondare-emaiza eta aurrekontuaren emaitza uztartzea	23
7 PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MEMORIA.....	24
7.1.1 DBEAren jarduerak	24
7.1.2 Datuen babeserako eskubidea sustatzeko jarduerak	25
7.1.3 2025ean burututako jarduera aipagarrienak	25



1 BALANTZEA

AKTIBOA	OHARRAK MEMORIAN	2025EKO EKITALDIA	2024KO EKITALDIA	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	OHARRAK MEMORIAN	2025EKO EKITALDIA	2024KO EKITALDIA
A) Aktibo ez arrunta		119.423,95	155.856,68	A) Ondare garbia		7.119.679,35	6.122.018,20
I) Ibilgetu ukiezina		105.899,97	138.618,10	II) Sortutako ondarea		7.119.679,35	6.122.018,20
3. Aplikazio informatikoak	6.5	105.899,97	138.618,10	1. Aurreko ekitaldietako emaitzak		6.122.018,20	4.933.278,42
II) Ibilgetu materiala		13.523,98	17.238,58	2. Ekitaldiko emaitza		997.661,15	1.188.739,78
5. Bestelako ibilgetu materiala	6.6	13.523,98	17.238,58				
B) Aktibo arrunta		7.329.426,36	6.176.718,44	C) Pasibo arrunta		329.170,96	210.556,92
III) Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk		—	350,00	IV) Hartzekodunak eta epe laburrean ordaindu beharreko beste kontu batzuk		329.170,96	210.556,92
2. Kobratu beharreko beste kontu batzuk		—	350,00	1. Gestio-eragiketengatik hartzekodunak		214.318,57	129.525,56
				2-Ordaindu beharreko beste kontu batzuk		20.932,24	—
				3. Administrazio publikoak	6.8.1	93.920,15	81.031,36
V. Epe laburreko finantza- inbertsioak		19.264,26	25.559,48				
2. Zorra adierazten duten kreditu eta baloreak	6.7.1	19.264,26	25.559,48				
VII) Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk		7.310.162,10	6.150.808,96				
2. Diruzaintza	6.11.2	7.310.162,10	6.150.808,96				
AKTIBOA GUZTIRA (A+B)		7.448.850,31	6.332.575,12	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)		7.448.850,31	6.332.575,12



2 EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	OHARRAK MEMORIAN	2025	2024
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak		2.795.977,00	2.728.148,00
a) Ekitaldikoak		2.795.977,00	2.728.148,00
a.2) Transferentziak		2.795.977,00	2.728.148,00
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK GUZTIRA (2+6)		2.795.977,00	2.728.148,00
8. Langile-gastuak		(-1.468.214,70)	(-1.375.110,62)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak		(-1.167.816,38)	(-1.141.428,06)
b) Gizarte kargak		(-300.398,32)	(-233.682,56)
9. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak		(-7.500,00)	(-5.000,00)
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk		(-316.448,33)	(-223.038,89)
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak		(-316.448,33)	(-223.038,89)
12. Ibilgetuaren amortizazioa	6.5 eta 6.6	(-81.747,82)	(-42.655,63)
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA (8+9+11+12)		(-1.873.910,85)	(-1.645.805,14)
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkiea edo desaurrezkiea) (A+B)		922.066,15	1.082.342,86
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta aktibo salgarrien balio-narriadura eta besterentzeagatiko emaitzak		—	490,89
b) Bajak eta besterentzeak		—	490,89
14. Arruntak ez diren beste partida batzuk		(-2.729,14)	—
a) Sarrerak		1.346,84	—
a) Gastuak		(-4.075,98)	—
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14)		919.337,01	1.082.833,75
15. Diru-sarrera finantzarioak		78.324,14	105.906,03
b.2) Beste batzuk		78.324,14	105.906,03
III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16+17+18+19+20+21)		78.324,14	105.906,03
IV. Ekitaldiko emaitza (aurrezkiea eta desaurrezkiea) garbia (II + III)		997.661,15	1.188.739,78



3 ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA

3.1 Ondare garbiaren aldaketen egoera guztira

	II. Sortutako ondarea 2025	II. Sortutako ondarea 2024
ONDARE GARBIA AURREKO EKITALDIAREN AMAIERAN	6.122.018,20	4.933.278,42
DOIKUNTZAK KONTABILITATE-IRIZPIDEEN ALDAKETENGATIK ETA ERROREEN ZUZENKETENGATIK	—	—
2025EKO EKITALDIKO HASIERAKO ONDARE GARBIA DOITUTA (A+B)	6.122.018,20	4.933.278,42
2025EKO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK	997.661,15	1.188.739,78
1. Ekitaldian kontabilizatutako gastuak eta sarrerak	997.661,15	1.188.739,78
ONDARE GARBIA 2025EKO EKITALDIAREN AMAIERAN (C+D)	7.119.679,35	6.122.018,20

3.2 Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orria

	2025	2024
I. Ondarearen emaitza ekonomikoa	997.661,15	1.188.739,78
II. Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako gastuak eta sarrerak	—	—
III. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo estalitako partiden hasierako baliora egindako transferentziak	—	—
IV. KONTABILIZATUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA (I+II+III)	997.661,15	1.188.739,78



4 ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA

	OHARRAK MEMORIAN	2025	2024
I. Kudeaketa-jardueren eskudiru-fluxuak			
A) Kobrantzak:		3.234.842,59	3.145.534,13
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak		2.795.977,00	2.728.148,00
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak		84.619,36	80.346,55
6. Beste kobrantza batzuk		354.246,23	337.039,58
B) Ordainketak:		(-1.996.832,64)	(-1.918.792,70)
7. Langile-gastuak		(-1.447.086,51)	(-1.368.224,00)
8. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak		(-5.000,00)	—
10. Kudeaketako beste gastu batzuk		(-201.009,55)	213.963,12
13. Beste ordainketa batzuk		(-343.736,58)	336.605,58
I. Kudeaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)		1.238.009,95	1.226.741,43
II. Inbertsio-jardueren diru-fluxuak			
C) Kobrantzak:		—	1.887,60
1. Benetako inbertsioak saltzea		—	1.887,60
D) Ordainketak:		(-78.656,81)	(-32.118,08)
5. Benetako inbertsioak erostea		(-78.656,81)	(-32.118,08)
II. Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)		(-78.656,81)	(-30.230,48)
VI. Eskudiruaren eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoen igoera/jaitsiera garbia (I+II+III+IV)		1.159.353,14	1.196.510,95
Ekitaldiaren hasierako eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak		6.150.808,96	4.954.298,01
Ekitaldiaren amaierako eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak		7.310.162,10	6.150.808,96



5 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA

Abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 4. artikulua xedatzen duenez, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen menpe dago, bere aurrekontua aldatzeko, gauzatzeko eta kitatzeko araubideari dagokionez.

Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duenaren VIII. tituluan dago araututa aurrekontuen likidazioa.

Azkenik, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Plana onartzen du, eta planak honako hauek jasotzen ditu besteak beste: urteko kontuak egiteko arauak eta kontuak egiteko dokumentu ereduak, memoriaren edukia barne.



5.1 Gastu-aurrekontuaren likidazioa

Sailk. ekon.	Azalpena	Hasierako kredituak	Kreditu-aldaketak	Kredituak guztira	Onartutako obligazioak	Egindako ordainketak	Ordaintzeke	Betearazpenaren %	Onartutako obligazioak 2024
10000	Kargu publikodunen ordainsariak	102.710,00	—	102.710,00	87.158,93	85.621,53	1.537,40	% 84,86	84.679,47
11000	Behin-behineko langileak	80.512,00	—	80.512,00	79.838,17	78.410,36	1.427,81	% 99,16	77.023,36
12000	Funtzionarioen ordainsariak	1.775.244,00	—	1.775.244,00	1.000.819,28	982.852,25	17.967,03	% 56,38	979.725,23
16000	Entitatearen konturako gizarte-kotizazioak	598.234,00	—	598.234,00	260.806,92	237.675,41	23.131,51	% 43,60	193.891,94
16101	Pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak	48.744,00	—	48.744,00	22.988,20	19.745,62	3.242,58	% 47,16	22.800,80
16200	Langileen prestakuntza eta hobekuntza	6.500,00	—	6.500,00	1.993,81	1.993,81	—	% 30,67	5.558,35
16201	Gizarte-ekintza	7.500,00	—	7.500,00	7.499,98	7.499,98	—	% 100,00	5.607,00
16202	Aseguruak	22.000,00	—	22.000,00	7.109,41	7.109,41	—	% 32,32	7.743,32
20100	Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	116.500,00	—	116.500,00	—	—	—	—	—
20600	Informazioa prozesatzeko ekipamenduak eta aplikazio informatikoak	18.000,00	—	18.000,00	16.122,66	849,59	15.273,07	% 89,57	14.452,81
21100	Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	—	—	—	—	—	—	—	788,9
21600	Altzariak	15.000,00	—	15.000,00	3.586,71	2.771,46	815,25	% 23,91	193
21601	Bulegoko ekipoak	—	—	—	—	—	—	—	3.949,94
21701	Aplikazio informatikoak	166.600,00	—	166.600,00	59.071,82	18.022,56	41.049,26	% 35,46	72.080,00
22000	Bulegoko materiala	5.000,00	—	5.000,00	3.928,78	3.928,78	—	% 78,58	2.732,90
22001	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	10.000,00	—	10.000,00	18.226,37	17.997,17	229,2	% 182,26	15.742,51
22201	Posta bidezko komunikazioak eta mezularitza	2.000,00	—	2.000,00	2.133,25	1.671,84	461,41	% 106,66	1.091,02
23100	Lokomozioa eta egonaldi-gastuak	30.000,00	—	30.000,00	34.490,66	33.863,72	626,94	% 114,97	44.387,90
23500	Protokoloa eta ordezkaritza	6.000,00	—	6.000,00	212,86	212,86	—	% 3,55	2.146,41
23501	Komunikazio instituzionala, publizitatea eta propaganda	15.000,00	—	15.000,00	77.223,30	23.591,26	53.632,04	% 514,82	—
23600	Juridikoak eta auzibidekoak	5.000,00	—	5.000,00	350,00	350,00	—	% 7,00	—
23700	Bilerak, konferentziak eta ikastaroak	30.000,00	—	30.000,00	76.765,90	47.075,79	29.690,11	% 255,89	46.999,84
23999	Bestelako hainbat gastu	—	—	—	16.277,87	15.277,35	1.000,52	—	6.313,16
24200	Argitalpenak argitaratzea eta banatzea	10.000,00	—	10.000,00	760,13	760,13	—	% 7,60	1.028,50
24300	Banku-zerbitzuak eta antzekoak	—	—	—	—	—	—	—	—
24400	Azterlanak, txostenak, aholkularitza	25.000,00	—	25.000,00	—	—	—	—	—
24499	Profesional independenteen lan teknikoak eta zerbitzuak	15.000,00	—	15.000,00	11.374,00	786,5	10.587,50	% 75,83	11.132,00
45200	Enpresentzat, familientzat eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat	15.000,00	—	15.000,00	7.500,00	—	7.500,00	% 50,00	5.000,00
	Eragiketa arruntak guztira:	3.125.544,00	—	3.125.544,00	1.796.239,01	1.588.067,38	208.171,63	% 57,47	1.605.068,36



60100	Aplikazio informatikoak	230.100,00	—	230.100,00	45.115,44	18.036,26	27.079,18	% 19,61	69.483,80
61600	Altzariak	12.000,00	—	12.000,00	199,65	199,65	—	% 1,66	6.364,60
61700	Informazio-prozesuetarako ekipoak	—	—	—	—	—	—	—	3.121,80
	Kapital eragiketak guztira:	242.100,00	—	242.100,00	45.315,09	18.235,91	27.079,18	% 18,72	78.970,20
	GUZTIRA	3.367.644,00	—	3.367.644,00	1.841.554,10	1.606.303,29	235.250,81	% 54,68	1.684.038,56

5.2 Sarrera-aurrekontuaren likidazioa

Sailk. ekon.	Azalpena	AURREKONTU AURREIKUSPENAK			Onartutako eskubideak guztira	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dauden Eskubideak	Betearazpenaren %	Onartutako eskubideak 2024
		Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak guztira	Aurreikuspenak guztira					
33200	Itzulketak	—	—	—	846,84	846,84	—	—	—
33905	Kostu eta kalte-ordain judizialak	—	—	—	500,00	500,00	—	—	—
36099	Zuzenbide pribatuko bestelako sarrerak	—	—	—	—	—	—	—	1.918,85
40000	EAEko administrazio orokorretik	2.780.977,00	—	2.780.977,00	2.780.977,00	2.780.977,00	—	% 100,00	2.713.148,00
53000	Bankuko kontu korranteetako interesak	100.000,00	—	100.000,00	78.324,14	59.059,88	19.264,26	% 78,32	105.906,03
	Eragiketa arruntak guztira	2.880.977,00	—	2.880.977,00	2.860.647,98	2.841.383,72	19.264,26	% 99,29	2.820.972,88
61601	Bulegoko ekipoak	—	—	—	—	—	—	—	1.887,60
70000	EAEko administrazio orokorretik	15.000,00	—	15.000,00	15.000,00	15.000,00	—	% 100,00	15.000,00
87000	Diruzaintzako gerakinak	471.667,00	—	471.667,00	—	—	—	—	—
	Kapital eragiketak guztira	486.667,00	—	486.667,00	15.000,00	15.000,00	—	% 3,08	16.887,60
	BATUKETA	3.367.644,00	—	3.367.644,00	2.875.647,98	2.856.383,72	19.264,26	% 85,39	2.837.860,48

5.3 Aurrekontu-emaizta

Kontzeptuak	Onartutako eskubide garbiak	Onartutako obligazio garbiak	Uneko ekitaldiko aurrekontu-emaizta	Aurrekontu-emaizta 2024ko ekitaldia
a) Eragiketa arruntak	2.860.647,98	1.796.239,01	1.064.408,97	1.215.904,52
b) Kapital eragiketak	15.000,00	45.315,09	(-30.315,09)	(-62.082,60)
I. UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA (I=a+b+c+d)	2.875.647,98	1.841.554,10	1.034.093,88	1.153.821,92
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA	2.875.647,98	1.841.554,10	1.034.093,88	1.153.821,92



6 MEMORIA

6.1 *Hitzaurrea*

Urteko kontu hauek azaltzen dute zein zen 2024ko ekitaldian Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren ekonomia- eta finantza-jarduera.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legeak (2024ko urtarrilaren 4ko EHAA, 3. zk.) ordeztu egiten du otsailaren 25eko 2/2004 Legean (Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legea) eta bildutako araubidea.

16/2023 Legea oinarri hartuta, 2024ko urtarrilaren 5etik aurrera, Datuak Babesteko Euskal Agintaritza Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren posizio juridikoan subrogatu da, Bulegoaren titulartasuneko ondasun, eskubide eta betebeharreri dagokienez. Xedatzen da, gainera, ordenamendu juridikoan Datuak Babesteko Euskal Bulegoa aipatzen denean, ulertu behar da Datuak Babesteko Euskal Agintaritza aipatzen dela.

16/2023 Legearen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzekoa den araudiaren antolamendua eta funtzionamendua egokitzea lege-arau hauen aurreikuspenetara: 2016/679 (EB) Erregelamendua; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

6.2 *Eginkizunak eta antolaketa*

6.2.1 *Eginkizunak eta ahalak*

Datuak Babesteko Euskal Agintaritza (aurrerantzean DBEA) ente publikoa da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa du, eta administrazio publikoekiko inongo loturarik gabe betetzen ditu bere eginkizunak.

DBEAk 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 57. eta 58. artikuluetan, maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoaren 49. eta 50. artikuluetan eta abenduaren 21eko 16/2023 Legean ezarritako eginkizunak eta ahalak egikaritzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen esparruan DBEAk honako eginkizun eta ahal hauek ditu:

- a) Legearen aplikazio-eremuko subjektuen ardurapeko datu-tratamenduak kontrolatzea eta gainbegiratzea.
- b) Zehatzeko ahala egikaritzea.
- c) Arautzeko ahala egikaritzea.
- d) Datuak babesteko agintaritzen arteko koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak ezartzea.
- e) Nazioarteko datu-transferentziak.
- f) Jokabide-kodeak.
- g) Ziurtapenak.



- h) Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalei buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa.
- i) Lankidetzaren estatuko eta nazioarteko datuak babesteko beste agintaritzak batzuekin.
- j) Zuzentzeko ahala egikaritzea.
- k) Zehatzeko ahala baliatzea.
- l) Mugaz gaindiko prozedurak, DBEA agintari nagusia edo interesduna denean.
- m) Lege eta erregelamenduetan emandako beste eginkizun oro.

6.2.2 Antolaketa

DBEAren gobernu-organok dira lehendakaria, kontseilu aholku-emailea eta bere estatutuan zehazturik dituenak.

DBEA eraentzen duten legezko eta erregelamenduzko xedapenak honako hauek dira:

- a) Abenduaren 21eko 16/2023 Legea (Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Legea), zeinak indargabetzen baitu otsailaren 25eko 2/2004 Legea (Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko Legea).
- b) 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra).
- c) 2016/680 (EB) Zuzentaraua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, pertsona fisikoak babesteari gainekoa, agintari eskudunek arau-haustea edo zigor penalak prebenitu, ikertu, antzeman edo auzitaratzeko asmoz datu pertsonalak tratatzeari buruz eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez; eta Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia indargabetzen duena.
- d) 2016/681 (EB) Zuzentaraua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, terrorismo delituak eta delinkuentzia larria prebenitu, ikertu, antzeman edo auzitaratzeko asmoz bidaiarien izenen erregistroko (PNR) datuak erabiltzeari buruzkoa.
- e) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (EU-ES) eta legea garatzeko erregelamenduak.
- f) 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.
- g) Administrazio ahalak eta ahal publikoak gauzatzean, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- h) Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretua, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena.
- i) Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.



Legeak dioenez, DBEAREN kontratazio-araubidea eta aurrekontua aldatzeko, gauzatzeko eta likidatzeko araubidea administrazio publikoentzat indarrean dagoen zuzenbide publikoan aurreikusitakoa izango da. Era berean, kontabilitate publikoaren araubidearen menpe ere badago.

DBEAK honako ondasun eta baliabide ekonomiko hauek izango ditu bere eginkizuna betetzeko:

- a) Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan urtero izendatuko zaion dirukopurua.
- b) Ematen dizkioten dirulaguntzak eta egiten dizkioten ekarpenak.
- c) Bere ondarea osatzen duten ondasun eta baloreak eta horietatik sortutako produktu eta errentak.
- d) Bere jarduera egikaritzearen ondoriozko diru-sarrerak (ohikoak eta apartekoak), 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 58. artikuluan eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoaren 50. artikuluan ezarritako ahalak egikaritzearen ondoriozkoak barne.
- e) Legez ematen dioten beste edozein ondasun edo baliabide.
- f) Lege honek DBEARi esleitzen dizkion jarduerak eta ahalak egikaritzearen ondoriozko edo egikaritze horretatik eratorritako diru-sarrerak Agintaritzaren erresebak hornitzeko baliatuko dira.

16/2023 Legean azaltzen diren eginkizunak eta ahalak egikaritzeko eta, DBEAREN estatutua onartzen ez den bitartean, urriaren 18ko 309/2005 Dekretuaren bidez onartutako Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua aplikatu behar da. Estatutu horren bidez instituzioaren egitura zehazten da, lehendakariaren mende dauden administrazio-unitate hauetan:

- a) Idazkaritza Nagusia.
- b) Aholkularitza Juridikoa eta Ikuskaritza.
- c) Eragin Teknologikoak eta Segurtasun Arriskuak Ebaluatzeko Unitatea.

6.2.3 Plantilla

Funtzionarioek beteko dituzte DBEAKO lanpostuak, eta lan-baldintzak euskal enplegu publikoa arautzen duen legeriaren mendean egongo dira.

2025ean, DBEAREN batez besteko plantilla honako hau zen, kategoria orokorren arabera:

Kategoria	Dotazioak	Batez besteko plantilla
Lehendakaria	1	1
Goi-mailako teknikariak	18	14,77
Administrariak	5	2
GUZTIRA	24	17,77

Hona hemen plantillaren egoera 2025eko abenduaren 31n, sexua kontuan hartuta:



Kategoria	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Lehendakaria		1	1
Goi-mailako teknikariak	5	9	14
Administrariak	1	1	2
GUZTIRA	6	11	17

6.2.4 Goi-mailako Zuzendaritza (zuzendaritza-kideak)

16/2023 Legearen arabera, lehendakaria da zuzendaritzako langile bakarra (goi-karguduntzat hartzen da) eta hari ekainaren 26ko 1/2014 Legean, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen horretan xedatutakoa aplikatuko zaio. DBEA zuzentzen du, haren ordezkaria da eta haren ebazpenak, zirkularrak eta gidalerroak ematen ditu.

Goi-mailako zuzendaritzako langileriak (lehendakaria) 2025eko ekitaldian 87.158,93 euroko lansaria sortu zuen guztira (2024an 84.679,47 euro). Lansari hori erantsitako galera eta irabazien kontu «Langile-gastuak» epigrafean erregistratuta agertzen da.

2025eko ekitaldian, lehendakariak ez zuen eragiketarik egin bere trafiko arruntetik kanpo edo merkatuko baldintzetatik bazter, ez instituzioarekin ez taldeko beste entitate batzuekin.

2025eko abenduaren 31n, ez zen pentsioen eta bizi-aseguruen arloko obligaziorik hartu zuzendaritzan ari ziren edo lehenago aritu ziren langileei buruz, eta haien kontura ez zen obligaziorik hartu, berme gisa.

2025eko abenduaren 31n ez zen pentsioen eta bizi-aseguruen arloko aurrerakinik hartu zuzendaritzan ari ziren edo lehenago aritu ziren langileei buruz.

6.3 Kontuak aurkezteko oinarriak

Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, DBEAk kontabilitate publikoaren arauak eta printzipioak bete behar ditu. 2025eko abenduaren 31ko datarekin aurkeztu dira urteko kontuak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko Aginduak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Planean xedatutakoaren arabera.

Kontu horiek jasotzen dituzten dokumentuetan agertzen diren datuak, hau da, balantzean, ondare-emaitzaren eta emaitza ekonomikoaren kontuan, ondare gordinean dauden aldaketen egoeran, diru-fluxuaren egoeran, aurrekontuaren likidazioaren egoeran eta memorian eurotan daude adierazita.

Urteko kontuak aurreko ekitaldietakoekin alderatuta aurkezten dira. Beraz, 2025 eta 2022ko balantzeko partidak, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuaren egoera-orria ere adierazi dira.

6.4 Onarpen- eta balioespen-arauak

Ibilgetu ukiezina



Ibilgetu ukiezinaren erosketak erosketa-prezioaren arabera kontabilizatzen dira, eta amortizazio-metodo lineala ezartzen zaie: urtean % 25.

Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialaren erosketak erosketa-prezioaren arabera kontabilizatzen dira, eta amortizazio-metodo lineala ezartzen zaie ondasunei zenbatetsi zaien bizitza baliagarriaren arabera, honako portzentaje hauek aplikatuta:

	<u>Portzentajeak</u>
Instalazioak eta altzariak	% 15
Informazio-prozesuetarako ekipoa	% 25
Beste batzuk	% 20

Lehendik dauden ondasunetan egiten diren hobekuntzek aktiboen bizitza baliagarria luzatzen badute, kapitalizatu egiten dira. Bestalde, mantentze-lanerako eta kontserbaziorako gastuak gertatzen diren unean kargatzen zaizkie emaitzei. Bajak eta besterentzeak kontabilitatean jasotzeko, elementuaren kostua eta metatutako amortizazioa ezabatu egiten dira.

Aktibo eta pasibo finantzarioak

Kobratu eta ordaindu beharreko partidak balio nominala kontuan hartuta erregistratzen dira.

Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak kontabilitatean jasotzeko, horiek sortzen diren aldia hartzen da kontuan, eta ez noiz kobratzen edo ordaintzen diren.

Jasotako esleipenak eta transferentziak sarrera moduan erregistratzen dira eskubidea sortzen den ekitaldian bertan.



6.5 Ibilgetu ukiezina

Hona hemen 2025eko ekitaldiko mugimenduak:

Aplikazio informatikoak		
KOSTUA	Hasierakoa	774.103,43
	Ekitaldi berria	45.115,44
	Ekitaldiko bajak	(-18.125,80)
	Amaierakoa	801.093,07
METATUTAKO AMORTIZAZIOA		
METATUTAKO AMORTIZAZIOA	Hasierakoa	635.485,27
	Ekitaldiko amortizazioa	77.833,54
	Ekitaldiko bajak	(-18.125,80)
	Amaierakoa	695.193,01
BALIO GARBIA		
	Hasierakoa	138.618,16
	Amaierakoa	105.899,97

6.6 Ibilgetu materiala

Hona hemen 2024ko ekitaldian ibilgetu materialaren kontuetan eta horien amortizazio metatuetan egon diren mugimenduak:

		Makinak eta tresnak	Altzariak eta bulegoko materiala	Ekipo informatikoak	Beste inbertsio batzuk	GUZTIRA
KOSTUA	Hasierakoa	387,80	184.933,96	6.152,85	5.005,80	196.480,41
	Ekitaldi berria	—	199,65	—	—	199,65
	Amaierakoa	387,80	185.133,61	6.152,85	5.005,80	196.680,06
METATUTAKO AMORTIZAZIOA						
METATUTAKO AMORTIZAZIOA	Hasierakoa	387,80	171.494,39	2.353,84	5.005,80	179.241,83
	Ekitaldiko amortizazioa	—	2.651,70	1.262,55	—	3.914,25
	Amaierakoa	387,80	174.146,09	3.616,39	5.005,80	183.156,08
BALIO GARBIA						
BALIO GARBIA	Hasierakoa	—	13.439,57	3.799,01	—	17.238,58
	Amaierakoa	—	10.987,53	2.536,46	—	13.523,99

DBEak bere jarduera «Apaizgaitegia» eraikinean egiten du, helbide honetan: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz.

«Apaizgaitegia» eraikinaren kudeaketaz Eusko Jaurlaritzako Baliabide Orokorren Zuzendaritza arduratzen da. Hori guztia, Ekonomia eta Ogasun Saileko (Eusko Jaurlaritza) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak izapidetutako espediente baten ondorioz. Espediente horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra subrogatu egin zen EJIE SAK ordu arte mintegiaren eraikinaren mendebaldeko hegalarren hegoaldeko erdiaren eta inguruko lurzoruen



errentamendu-kontratuan errentari gisa zuen posizioan. Bada, horren ondorioz, 2023ko apirilaren 1etik aurrera «Apaizgaitegia» eraikinaren kudeaketaz Baliabide Orokorren Zuzendaritza arduratzen da; DBEak bere jarduera lokal horietan beraietan egiten jarraitzen du, eta lokalen erabilera doan lagata dauka.

DBEak bere jarduera eraikin horretan egiten du, eta lokalen erabilera Eusko Jaurlaritzak doan lagatzen du.

6.7 Esleipenak, transferentziak, dirulaguntzak eta beste diru-sarrera eta gastu batzuk

6.7.1 Esleipenak, transferentziak eta beste diru-sarrerak

DBEak transferentzia bidez jasotzen dituen sarrerak urtero izendatzen diren Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako diru-kopuruak dira.

Beste alde batetik, Agintaritzak dituen diruzaintzako gerakin metatuak erabiltzeko dauden aukera guztiak ikusita, uste dugu gerakinok erabili behar ditugula DBEak, bere eskumenak gauzatzeko asmoarekin erabiltzea aurreikusita dituen jarduerak atenditzeko beste baliabide bat balitz bezala, gainontzeko sarrerekin ezinezkoa delako behar bezala finantzatzea aurreikusita dauden gastuak. Diruzaintzako gerakin metatuak ohiko aurrekontuan txertatzeko proposamena egiteko eskumena DBEaren lehendakariak du, dagokion aurrekontu aurreproiektua onartzean eta Eusko Jaurlaritzara bidaltzean, EAeko aurrekontu orokorretan txertatzeko.

Ondorioz, erabaki dugu diruzaintzako gerakin zati bat erabili dezakegula oso-osorik bi helburu hauekin:

- a) Osatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura urtero ezartzen diren aurrekontu esleipenak, Eusko Jaurlaritzak Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari egiten dizkion horiek.
- b) Jarduketa-planetan ezarritako proiektuak eta gastuak gauzatzeko, kontuan izanda ez genukeela horretarako finantziatorik, ez balitz gure gerakinaren zati bat erabilita.

Kontu korranteetako interesak likidatzeari dagokionez, 2025eko abenduaren 31n, DBEaren balantzean 19.264,26 euroko zenbateko bat agertzen da kobratzeko; zenbateko hori 2025eko 4. hiruhilekoan sortutako interesei dagokie, hain zuzen ere 2026ko ekitaldian kobratu diren horiei.

6.7.2 Dirulaguntzak eta beste gastu batzuk.

Atal honetan adierazi behar dugu 2025eko ekitaldian kontzeptu horiei egotzi ahal zaien gastu bat egon dela, Datu Pertsonalen Babeserako Sarien X. Edizioaren deialdia ebaztearen ondorioz.

Deialdiaren oinarrietan ezartzen denez, sariak, «**Ikerkuntza edo Ekintzailtza**» eta «**Komunikazioa, Zabalkundea eta Sormena**» kategorietan dotazio ekonomikoa dute, salbu eta saritutako pertsonak edo entitateak izaera juridiko publikoa badute. Epaimahaiak ebazpena eman ostean, deialdiko oinarrietan adierazitako dotazio ekonomikoak ordaindu ziren. Guztira 7.500 euro.



6.8 Aurrekontuz kanpoko eragiketak

6.8.1 Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak

Atal honetako saldoak bere baitan hartzen ditu administrazio publiko hartzekodunei ordaindu gabeko zenbatekoak: PFEZren eta langileen kargurako gizarte-kotizazioen ondoriozko atxikipen guztiak.

	Hasierako saldoa	Kobrantzak	Ordainketak	Amaierako saldoa
OGASUN PUBLIKOA, HARTZEKODUNA BESTE ZERGA-KONTZEPTU BATZUENGATIK	76.823,26	297.540,86	285.072,72	89.291,40
GIZARTE AURREIKUSPENEN ERAKUNDEAK, HARTZEKODUNAK	4.208,10	55.008,53	54.587,88	4.628,75
Guztira	81.031,36	352.549,39	339.660,60	93.920,15

6.9 Administrazio-kontratazioa. Esleipen-prozedurak

Hainbat kontratazio egin da 16/2023 Legean ezarritako eginkizunak eta ahalak egikaritzeko eta DBEaren funtzionamendua bermatzeko. Garrantzitsuenak honako hauei buruzkoak dira:

- Administrazio elektronikoko plataforma integrala (kontratu publiko irekia)
- Bulegoko materiala eta ekipoak erostea.
- Egunkariak, aldizkariak eta liburuak erostea.
- Azterlanak eta txostenak.
- Posta bidezko komunikazioen zerbitzua.
- Fotokopiagailuen mantentze-lana.
- Software lizentziak berritzea.
- Aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena.
- Lankidetz-plataformak eskuratzea.
- Sare sozialetako eta beste hedabide batzuetako presentzia kudeatzea.
- Ekitaldi publikoak antolatzea eta ekitaldiotan parte hartzea.
- Prestakuntza-jarduerak ematea.
- Joan-etorriak eta ostatua (bidaia-agentziak).
- Langileen bizi- eta istripu-aseguruak.
- Kanpoko prebentzio-zerbitzua.

6.10 Ingurumenari buruzko informazioa

Instituzio honen jarduera kontuan hartuta, ez du ondarearekin, finantza-egoerarekin eta horren emaitzekin alderatuta garrantzirik izan dezakeen ingurumen jatorriko erantzukizunik, gasturik, aktiborik ezta hornidurarik, ez kontingentziarik ere.

Instituzioa ez da berotegi-efektuko gasak emititzeko eskubideen titularra, eta ez dauka kontrolik halako eskubideen gainean.

6.11 Aurrekontuei buruzko informazioa



6.11.1 Kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen egoera, aurreko ekitaldietakoa

Kobratu beharreko eskubideak

Aurrekontu-eskubideak

Azalpena	Kobratu gabeko eskubideak urtarrilaren 1ean	Diru-bilketa	Kobratzeko dauden eskubideak
Bankuko kontu korranteetako interesak	25.559,48	25.559,48	—
GUZTIRA	25.559,48	25.559,48	—

Aurrekontukoak ez diren eskubideak

Azalpena	Kobratu gabeko eskubideak urtarrilaren 1ean	Diru-bilketa	Kobratzeko dauden eskubideak
Kobratu beharreko beste kontu batzuk	350,00	350,00	—
GUZTIRA	350,00	350,00	—

Ordaindu beharreko obligazioak

Azalpena	Ordaindu gabeko obligazioak urtarrilaren 1ean	Hasierako saldoaren aldaketak eta ezeztatzeak	Obligazioak guztira	Egindako ordainketak	Ordaintzeke daude obligazioak
Entitatearen konturako gizarte-kotizazioak	21.647,68	—	21.647,68	21.647,68	—
Pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak	4.530,46	—	4.530,46	4.530,46	—
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak eta aplikazio informatikoak	3.520,36	—	3.520,36	3.520,36	—
Bulegoko ekipoak	751,10	—	751,10	751,10	—
Aplikazio informatikoak	30.323,91	—	30.323,91	30.323,91	—
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	209,80	—	209,80	209,80	—
Posta bidezko komunikazioak eta mezularitza	88,12	—	88,12	88,12	—
Lokomozioa eta egonaldi-gastuak	2.333,15	—	2.333,15	2.333,15	—
Bilerak, konferentziak eta ikastaroak	56,50	—	56,50	56,50	—
Bestelako hainbat gastu	643,58	—	643,58	643,58	—
Enpresentzat, familientzat eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat	5.000,00	—	5.000,00	5.000,00	—
Aplikazio informatikoak	60.420,90	—	60.420,90	60.420,90	—
GUZTIRA	129.525,56	—	129.525,56	129.525,56	—



6.11.2 Diruzaintzako kontua

Izakinak

Ordinala	Saldoa urtarrilaren 1ean	Diru-sarrerak	Ordainketak	Amaierako saldoa
AVPD/DBEA KONTU NAGUSIA - GASTUAK	6.098.917,52	3.232.836,15	2.075.489,45	7.256.264,22
AVPD/DBEA KONTU NAGUSIA - SARRERAK	51.891,44	2.006,44	—	53.897,88
GUZTIRA	6.150.808,96	3.234.842,59	2.075.489,45	7.310.162,1

Diruzaintzaren egoera

	2025	2024
Diruzaintza ekitaldiaren hasieran	6.150.808,96	4.954.298,01
KOBRANTZAK		
Aurrekontuetakoak		
Onartutako eskubideengatiko zordunak Uneko ekitaldia	2.856.383,72	2.812.301,00
Onartutako eskubideengatiko zordunak Amaitutako ekitaldiak	25.559,48	—
Aurrekontuz kanpoko eragiketakoak		
Ogasun publikoa, hartzekodun beste zerga kontzeptu batzuegatik	297.540,86	285.379,13
Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodunak	55.008,53	51.660,45
Aurrekontuzkoak ez diren beste zordun batzuk.	350,00	—
KOBRANTZAK GUZTIRA	3.234.842,59	3.149.340,58
ORDAINKETAK		
Aurrekontuetakoak		
Onartutako obligazioengatiko hartzekodunak. Uneko ekitaldia	1.606.303,29	1.554.513,00
Onartutako obligazioengatiko hartzekodunak. Amaitutako ekitaldiak	129.525,56	61.711,05
Aurrekontuz kanpoko eragiketakoak		
Ogasun publikoa, hartzekodun beste zerga kontzeptu batzuegatik	285.072,72	284.809,21
Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodunak.	54.587,88	51.796,37
ORDAINKETAK GUZTIRA	2.075.789,45	1.952.829,63
Diruzaintza ekitaldiaren amaieran	7.310.162,10	6.150.808,96



Diruzaintzako gerakina

	2025	2024
(a) Kobratzeko dauden zordunak	19.264,26	25.909,48
+ Gastu aurrekontuetakoak, aurtengoa	19.264,26	25.559,48
+ Aurrekontuari lotuta ez dauden beste eragiketa batzuetakoak	—	350,00
(b) Ordaintzeko dauden hartzekodunak	329.170,96	210.556,92
+ Gastu aurrekontuetakoak, aurtengoa	235.250,81	129.525,56
+ Aurrekontuari lotuta ez dauden beste eragiketa batzuetakoak	93.920,15	81.031,36
(c) Diruzaintzako funts likidoak	7.310.162,10	6.150.808,96
(d) Diruzaintzako gerakin likidoa (a - b + c)	7.000.255,40	5.966.161,52

Diruzaintzaren aldaketa, metatutako aurreko gerakinarekin alderatuta

	2025	2024
Diruzaintzako gerakin likidoa 01/01	5.966.161,52	4.812.339,60
(+/-) Ekitaldiko aurrekontu-eremua	1.034.093,88	1.153.821,92
Diruzaintzako gerakin likidoa 12/31	7.000.255,40	5.966.161,52
Itxitako ekitaldietako eskubideak kitatzea	—	—
Diruzaintzako gerakin likidoa 12/31 doituta	7.000.255,40	5.966.161,52

6.11.3 Kreditu txartelak.

Instituzioak kreditu-txartel bat dauka, 2025erako 7.000 €-ko muga eta 2024rako 7.000 €-koa daukana. 2025eko abenduaren 31n ez zuen kopuru bat ere erabili, ezta 2024ko abenduaren 31n ere.



6.12 Finantza-, ondare- eta aurrekontu-adierazleak

RATIOAK	2025	FORMULA	AZALPENA
GASTU AURREKONTUAREN BETEARAZPENA	% 54,68	$\frac{\text{ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK}}{\text{KREDITUAK GUZTIRA}}$	Ekitaldian onartutako kredituen konturako obligazioak
SARRERA AURREKONTUAREN BETEARAZPENA	% 85,39	$\frac{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK}}{\text{KREDITUAK GUZTIRA}}$	Onartutako eskubide garbiak, ekitaldian onartutako kredituekiko
ORDAINKETEN BETETZE MAILA	% 87,22	$\frac{\text{ORDAINDUTAKO OBLIGAZIOAK}}{\text{ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK}}$	Ordainketen kudeaketaren portaera ebaluatzen du
KOBRANTZEN BETETZE MAILA	% 99,33	$\frac{\text{LIKIDATUTAKO ESKUBIDEAK}}{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Kobrantzen kudeaketaren efikazia ebaluatzen du
LANGILE-GASTUEN INDIZEA	% 78,37	$\frac{\text{LANGILE-GASTUAK}}{\text{GASTU ARRUNTAK}}$	Balio du jakiteko zenbatekoa den langileen gastuen portzentajea, eragiketa arruntekiko
INBERTSIOEN GARRANTZIAREN INDIZEA	% 2,46	$\frac{\text{KAPITAL ERAGIKETENGATIK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK}}{\text{ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK GUZTIRA}}$	Egindako inbertsioen garrantzi kuantitatiboa, izenpetutako obligazioekiko
INBERTSIOEN FINANTZAKETA INDIZEA	% 33,10	$\frac{\text{KAPITAL ERAGIKETEN ONDORIOZKO SARRERAK}}{\text{KAPITAL ERAGIKETEN ONDORIOZKO GASTUAK}}$	Mota bereko sarrerekin finantzatzaren diren kapital eragiketarako gastuen adierazlea
AUTOFINANTZAKETA ARRUNTERAKO MARJINA	% 62,79	$\frac{\text{ERAGIKETA ARRUNTEN ONDORIOZKO OBLIGAZIOAK}}{\text{ERAGIKETA ARRUNTEN ONDORIOZ ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Mota bereko sarrerekin finantzatzaren diren eragiketa arruntetako gastuen adierazlea
FINANTZAKETA GAITASUNA	% 35,96	$\frac{\text{AURREZKIA/DEFIZITA}}{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Balio du ebaluatzeko ea zer finantzaketa-gaitasun dagoen, aurrekontu ekitaldiarekiko
BATEZ BESTEKO KOBRAKETA ALDIA	2,43	$\frac{\text{ESKUBIDEAK KOBRATZEKE*360}}{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Aurrekontu-ekitaldia bukatzean kobratzeko epeak ebaluatzeko (batez bestekoa egiteko) balio du
BATEZ BESTEKO ORDAINKETA ALDIA	45,98	$\frac{\text{OBLIGAZIOAK ORDAINTZEKE*360}}{\text{ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK}}$	Aurrekontu-ekitaldia bukatzean ordaintzeko epeak ebaluatzeko (batez bestekoa egiteko) balio du



6.13 *Ekonomia- eta ondare-emaiza eta aurrekontuaren emaitza uztartzea*

Segidan ikus daiteke nola uztartzen diren 2024ko ekitaldiko kontabilitate-emaiza eta aurrekontuaren betearazpenak sortutako emaitza.

	2025	2024
EKITALDIKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) GARBIA	997.661,15	1.188.739,78
KEN: EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN PARTE EZ DIREN AURREKONTU-GASTUAK	(-45.315,09)	78.970,20
Ibilgetu immateriala eta eraikitako edo beste erakunde batzuei erositako aktiboak	(-45.315,09)	78.970,20
GEHI: AURREKONTU-EMAITZAN EZ DAUDEN GASTUAK	81.747,82	42.655,63
Ibilgetuaren amortizazioa	81.747,82	42.655,63
KEN: AURREKONTU-EMAITZAN EZ DAUDEN SARRERAK	—	(- 1.396,71)
Ibilgetu materialaren ondoriozko diru-sarrerak (bajak)	—	(- 1.396,7)1
EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA	1.034.093,88	1.153.821,92



7 PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MEMORIA

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak honako xede hau du: «Euskal administrazio publikoentzat eta herritarrentzat erreferentziatzeko kontrol agintaritzaren independentea izatea, pertsonen pribatutasunari eta intimitateari dagokienez, datu pertsonalak babesteko oinarritzeko eskubidea errespetatu dezaten zainduz».

DBEaren ikuspenaren xedea da lortzea gizarte bat eratzea, non herritarrek datu pertsonalen esparruan dituzten eskubideak ezagutzen dituzten eta jakin dakiten nola izan behar den tratatua beraien informazio pertsonala; non herritar ororen eskubide guztiak errespetatuak diren eta datu babeserako eskubidearekin ponderaturik erabiliak diren, eta non euskal administrazio eta instituzio publikoek modu leialean, legearen arabera, arduratsu eta seguru jokatzuz tratatzen dituzten datu pertsonalak eta horiekin elkarreraginean arituko diren.

Hori guztia erdiesteko, DBEak honako balio hauek ditu gidari: bere eskumenez baliatzea independentziarekin, herritarrenganako hurbiltasuna eta administrazio publikoekiko lankidetzaren, DBEan lan egiten duten pertsonen garapena eta asebetetzea, eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntza kudeaketaren esparruan.

7.1.1 DBEaren jarduerak

DBEak, kontrol-agintaritzaren izaera duenez, hainbat eginkizun burutzen ditu modu jarraitu eta iraunkorrean, abenduaren 21eko 16/2023 Legeak esleitzen dizkion eginkizunetatik eratorriak.

Kontrol-eginkizuna.

- Eskubideak babesteko prozedurak izapidetzea. Herritarrek datuetarako irispiderako eskubidea, datuak zuzentzekoa, tratamenduaren aurka egitekoa, ezereztekoa («ahaztua izateko eskubidea»), tratamendua mugatzekoa, datuak transferitzekoa eta banakako erabakien objektu ez izatekoa egikaritzearen ondoriozko prozedurak dira.
- Salaketa-prozedurak izapidetzea. Datu-babesaren araudiaren aurkakoak izan daitezkeen jokabideengatik aurkeztutako erreklamazioei dagozkien prozedurak dira.
- Informazio-eginbideak izapidetzea. Ofizioz irekitzen dira datu-babesaren arloko araudiaren aurkakoak izan daitezkeen egintzengatik.
- Administrazio publikoen arau-hauste eta zehapen-espeditenteak izapidetzea, jardueraren batek datuen babesaren arloko araudia urratzen duelako susmorik dagoenean.

Ikuskaritza-eginkizuna.

- Frogatzeko ikuskapenak egitea, kontrol-espeditente batzuen instrukzioarekin lotuta.
- Prebentzioko ikuskapenak egitea, diagnostiko eta egokitzapen xedearekin.

Aholkularitza-eginkizuna.

- Xedapen orokorrei buruzko proiektuen gaineko legezotasun-txostenak egitea eta nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten arau-xedapenei buruzko txostenak egitea.



- Bestelako araugintza-proiektuei buruz eskatzen diren legezketasun-txostenak bidaltzea, datu pertsonalak babesteko eskubideari dagokionez.
- Administrazio publikoek eta pertsona pribatuek, fisikoek nahiz juridikoek datu pertsonalen babesaren arloko gai jakinei buruzko zalantzak argitzeko eskatuz egindako kontsultei erantzuteko irizpen juridikoak egitea.

Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistroa.

- Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistroa, Erregelamendu Orokorra aplikatu ostean.

7.1.2 Datuen babeserako eskubidea sustatzeko jarduerak.

Datuen babeserako eskubidea sustatzeko ekintzak, eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntzarakoak, beti ere Agintaritzak esleituta dituen ahalen esparruan, bere jardueraren ardatzak, administrazioaren eta herritarren eskubideak eta betebeharrak zabaltzeari, hedatzeari eta ezagutzeari dagokionez.

Horretarako, DBEAK pertsonen eskubideak eta erakundeen betebeharrak sustatzen ditu. Horrez gain, aholkularitza aditua ematen du eta betebeharrak betetzen direla kontrolatzen du, gatazkak konpontzen ditu (eskubideak babestea, arau-hausteak deklaratzeko eta abar) eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan jardunbide egokiak sustatzen ditu.

Jarduerok lau ardatz nagusitan antolatu dira, eta horietako bakoitzarentzat erronka hauek finkatu dira besteak beste:

Ardatza: Herritarrak

Lortzea herritarrek balia dezatela datuen babeserako eskubidea, eskubidearen berri dutelako, Datuak Babesteko Euskal Agintaritza dagoela dakitelako eta eskubideez baliatzea erraza eta ezaguna delako.

Ardatza: Administrazio publikoak

Lortzea administrazio publikoek datuen babeserako eskubidea bete dezatela.

Ardatza: Aliatu estrategikoak

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak dituen helburuak lortzen laguntzen duten aliantza estrategikoak edukitzea.

Ardatza: Barne antolaketa

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako pertsonen kudeaketan eta lanbidegarapenaren esparruan hobekuntzak eta berrikuntzak egitea.

7.1.3 2025ean burututako jarduera aipagarrienak

2025ean sustatzen jarraitu dugu datuak babesteko oinarrizko eskubidea, bai eta etengabeko prestakuntza eta berrikuntza ere, Agintaritzaren eskumenak baliatuz.

Honako hauek dira egin diren jarduerarik aipagarrienak, jarduera-ardatzen arabera:

Ardatza: Herritarrak.



01. Datu pertsonalak babesteko eskubidearen ezagutza handitzea.

- Herritarrei zuzendutako komunikazio-politika hobetzen jarraitzea.
- Herritarrei zuzendutako hitzaldietarako, mintegietarako eta jardunaldietarako edukiak eta materialak garatzea.
- Herritarrei zuzendutako hitzaldiak, mintegiak eta jardunaldiak sustatzea eta ematea.
- Herritarrekin komunikatzeko kanalak hobetzea (web-orria, sare sozialak...).
- 2025eko Datu Babesaren Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat jarduera antolatzea.
- Web-orria berritzen eta edukiak eguneratzen jarraitzea.
- Datuak babesteko eskubideari buruzko zabalkunde-material berriak garatzea.

02. Eskubidea gero eta errazago eta era praktikoagoan egikaritu ahal izatea.

- Jarraitzea web-orrian irizpen juridikoak eta ebazpenak argitaratzen.
- Maiz egiten diren galderen (FAQ izenekoak) edukia hobetzea.

03. Agintaritzaren lanaren gaineko ezagutza handitzea, datu pertsonalen babesaren bermatzaile gisa.

- Agintaritzaren lanaren zabalkundea egitea (komunikabideen, web-orriaren, sare sozialen eta abarren bidez).
- Estatuko eta nazioarteko ekitaldi eta foroetan parte hartzea.
- Instituzioa sortu zeneko 20. urteurrena ospatzeko ekitaldi bat antolatzea.

Ardatza: Administrazio publikoak.

04. Administrazio publikoek datu pertsonalak babesteko eskubidearen bermea hobetzea.

- Prozedurak izapidetzea eta irizpenak ematea.
- Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistroa kudeatzea.

05. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren prebentzioko ekintzak sustatzea administrazio publikoekin lankidetzan arituz, proiektu berrien esparruan.

- Pribatutasunaren gaineko eraginari buruzko azterketak (PIA) sustatzea osasunaren esparruan, bideozaintzarenean, hezkuntzarenean eta abarretan.

06. Jardunbide egokien gaineko ezagutza handitzea administrazioetan eta ikuspegi proaktiboa hartzea prestakuntzaren eta kontzientziazioaren esparruan.

- Administrazio publikoei zuzendutako edukiak eguneratzea.
- Materialak prestatzea eta kontzientziazio- eta trebakuntza-saioak sustatzea eta ematea, administrazio publikoei zuzenduta.
- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta datu-babesari buruzko jarduketak sustatzea.
- DBEaren lehentasunezko eta ohiko solaskideekiko harremanak sendotzea.
- Komunikazio eta lankidetzarako kanalak sortzea administrazio publikoetako datuak babesteko ordezkariekin.

Ardatza: Aliatu estrategikoak.

07. Aliantza estrategikoen gaur egungo esparrua berrikustea.

- Interes-talde bakoitzarentzako berariazko helburuak dokumentatzea.

08. Beharrezko aliantza estrategikoak ezartzea eta mantentzea.

- Toki-entitateekiko lankidetzarekin jarraitzea.
- Legebiltzarrekiko harremanak bultzatzea, datuen babesa aztertzeke autonomia-erkidegoko legerian.
- Datuen babesari buruzko biltzar nazional nahiz nazioartekoetan parte hartzea, eta horko lantaldeetan ere bai.



-
- Datuak babesteko agintaritzen artean ditugun proiektu komunak garatzen jarraitzea eta lantaldeetan parte hartzea.
 - Duela gutxi sortu zen Euskadiko Zibersegurtasun Agentziarekin elkarlanean aritzea.

Ardatza: Barne-antolaketa.

09. DBEAren ohiko jarduera hobetzea.

- Agintaritzaren barne ezagutzaren kudeaketa eta zabalkunde sistema sendotzea eta hobetzea.
- DBEAren jardueraren gaineko itzulpen lanak egitea, eta datuen babesaren esparruko terminologia espezializatua sendotzea.

10. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren baliabide ekonomiko eta materialen erabilera efizientea hobetzea.

- Eskura dauden baliabide ekonomikoak egokitzea, abian dauden zerbitzu eta azpiegitura berrien ezarpenetik eratorritako premietarako.

11. Administrazio elektronikoa ezartzen jarraitzea.

- Agintaritzak ematen dituen zerbitzu publikoetarako irispidea modu efizienteago, efikazago eta gardenagoan izateko bidea emango duten azpiegitura eta zerbitzuak zabaltzen jarraitzea.
- Administrazio publikoek eta herritarrek bitarteko elektronikoen bidez eskatzen dituzten jarduketa, prozedura eta zerbitzuak izapidetzeko bidea ematea.

12. Pozik dagoen, gaitasuna duen eta inplikaturata dagoen plantilla bat sendotzea.

- 2024-2027 epealdiko «Giza Baliabideak Antolatzeko Plana / Plangintzarako Gidalerroak» izeneko plana prestatzea.
- Langileen plantilla egonkortzeko prozesuak prestatzea eta kudeatzea.
- Lanpostu hutsak betetzeko hautaketa-prozesuak deitzea eta kudeatzea.
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Planaren barruan jarduera proaktiboari eustea.
- DBEAko langileen etengabeko prestakuntza erraztea.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZA
AUTORIDAD VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZA/AUTORIDAD VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS¹ entearen lehendakari Unai Aberasturi Gorriño jaunak 2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko kontuak sinatzen ditu eta bat datorrela adierazten du. Hona hemen urteko kontuak osatzen dituzten agiriak:

- **BALANTZEA**
- **ONDARE-EMAITZAREN ETA EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA**
- **ONDARE GORDINAREN ALDAKETA-EGOERA**
- **ESKUDIRU-FLUXUAREN EGOERA**
- **AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA**
- **MEMORIA**

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

Ainara Ugalde López andrea,
Idazkari nagusia

Unai Aberasturi Gorriño jauna,
Lehendakaria

1 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.